



**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**  
**KADETEAK A eta B**

**LEHIAKETEN ARAUDIA**

## **I.- JOKATZEKO DATAK**

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak 2020ko Uztailaren 9an onartutako egutegiaren arabera. Euskal Federazioaren Txapelketara igotzeko, federazio horrek igoera-fase horretarako ezarritako egutegia hartuko da kontuan.

## **II.- TALDE PARTE-HARTZAILEAK**

Lehiaketa honetan, 2019-2020 denboraldian parte hartu zuten taldeak multzotan banatuko dira, **A/G1, A/G2, A/G3, B/G4 (mutilen kategorian) eta A/G1, A/G2, A/G3, B/G1, B/G2 (nesken kategorian).**

Txapelketak zehazteko, klubek erabaki beharko dute **IZENA EMATEKO ORRIAN** jokatuko duten kategoria, A edo B. Izena emateko data amaitutakoan, klubei jakinaraziko zaie zein talde inskribatu diren.

## **III.- LEHIAKETA FORMULA**

Lehiaketa honetan, **A/G1, A/G2, A/G3, A/G4** multzoek bi fase jokatuko dituzte:

### **Lehenengo fasea**

**Fase honetan, talde bakoitzak liga formularen arabera jokatu du, denak denen aurka eta itzuli batera (1), sailkapen orokor bat ezartzeko eta multzo bakoitzean hurrengo faserako zein talde sartuko diren zehazteko.**

### **Bigarren fasea**

**Fase honetan, 8 taldeak (multzo bakoitzeko lehen 2) talde bakarrean banatuko dira eta ligaren formularen arabera jokatu dute, denek denen aurka itzuli batera (1), behin betiko sailkapen orokor bat ezartzeko eta lehenengoa eta bigarrena zehazteko, azken horiek izango baitira Euskadiko Federazioak antolatutako hurrengo fasera pasako direnak.**

**Gainerako taldeak, 2 multzotan banatuko dira fase berri bat jokatzeko, denak denen aurka eta itzuli bakarrera, parte-hartzaile guztien behin betiko sailkapen orokorra ezartzeko.**

Txapelketako azken sailkapen honek postuaren arabera lortutako puntuazioa zehaztu ahal izateko balioko du, jubenil mailako taldearekin batera, 2021-22 Euskal Ligara igoko den taldea erabakitzeke.

**Puntuetan berdinketa egongo balitz, egoera honen aurrean, KADETE mailako azken klasifikazioak erabakiko du.**

**MULTZO BAKARREKO lehiaketa, B mailan jokatzen duten taldeek, ahal izanez gero, liga formularen arabera jokatuko dute, denak denen aurka eta bi itzulira, behin betiko sailkapena ezartzeko eta beste faserik gabe.**

#### **IV.- PARTIDEN DATA ETA ORDUTEGIAK**

Txapelketako partida guztiak Egutegi Ofizialean aurreikusitako egunetan egingo dira, ezinbesteko arrazoiengatik edo Diziplina Batzordearen erabakiz beste egun batean egin beharrekoak izan ezik.

Partidek programazio bat eta balizko aldaketak izango dituzte, bai ordutegiei dagokienez eta bai datari dagokionez; lehiaketako **Erregelamendu Orokorrean (3.5)** adierazitako araudiaren arabera

Diziplina Batzordea arduratuko da arau hau betetzeaz eta, halakorik ezean, aurreikusitako zigorrak aplikatzeaz; **(3.10) atalean** adierazitakoaren arabera.

#### **V.- PARTE HARTZEN DUTEN JOKALARIAK**

Kadete kategoriako jokalaria **2005 eta 2006** urteetan jaiotako **federazio-lizentzia dutenak** izango dira.

Talde bakoitzak gehienez **18 jokalariz eta gutxienez 10 jokalariz** osatua egon beharko du.

Gutxieneko edo gehieneko kupoen osieran edozein anomalia izanez gero, **FGBMko Diziplina Batzordeak** onartu beharko du, lehiaketa hasi aurretik.

Aurreko atalean ezarritako jokalaria-kupoan, gehienez ere hemezortzi (18) plaza bete ahal izango dira beren klubeko bigarren urteko **infantil-talderen bateko jokalaria izendunekin (2007an jaiotakoak eta beti berdinak).**

Nolanahi ere, jokalaria horiek (2007an jaiotakoak) ez dira izendunak izango, eta gehienez lau (4) lerrokatu ahal izango dira partida bakoitzean. Horiek guztiek aldeztu aurretik **baimenduta egon beharko dute**, Lehiaketarako Erregelamendu Orokor apartatuan (2.2) adierazitako araudiaren arabera eta baimenik gabe jokatu ezker, lerrokatze bidegabea izango litzake.

Goragoko kategoriarako baimendutako jokalaria (bigarren urteko infantilak 2007) Ez dute jatorrizko lehiaketan parte hartzeko eskubidea galduko, baina ezingo dira **jardunaldi eta data berean** bi kategoria ezberdinetan lerrokatuak izan. Honek, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak antolatutako lehiaketa guztietan eragingo du.

## **VI.- ENTRENATZAILE ETA DELEGATUAK**

Talde guztiak Aktan izena ematera behartuak daude eta entrenatzaile edo entrenatzailearen laguntzaile batek egon behar du partida bakoitzean (ONARTUTAKO TITULAZIOAREKIN).

**Ekipo batek Foru Aldundiak izapidetutako lizentzia bat erabiltzen duenean, eskatutako titulazioa duela bermatu behar du; halakorik ezean, lerrokatze bidegabea izango du.**

Halaber, nahitaez inskribatu behar da aktan eta bertan egon beharko du ZELAIEKO DELEGATU batek, antolatzea dagokion partida bakoitzean.

Betebehar horiek ez betetzea FGBM Alderdien eta Lehiaketen Erregelamenduaren arabera zigortuko da.

## **VII.- ARAU TEKNIKOAK**

**Kategoria honetan debekatuta dago itsasgarriak edo pega erabiltzea.**

**Gipuzkoako Federazioak antolatzen dituen kadeteen kategorietako lehiaketetan ez da defentsa mistorik baimentzen..**

**Ezin izango dira jokalaria espezialistak aldatu erasoan/defentsan bakarrik, honako garapen eta azalpen hauek kontuan hartuta:**

### **GARAPENA:**

**Partidan zehar, ordezoak bere taldeak baloiaren jabetza duenean bakarrik sartu ahal izango dira zelaian, ohar hartzaile-kronometratzaileari abisatu gabe, eta betiere ordezkatzan dituzten jokalariek zelaia utzi badute.**

### **AZALPENA:**

### **TALDEA BALOIAREN JABE DELA ULERTU BEHAR:**

- A) Taldeko edozein jokalarik baloia duenean.**
- B) Sake edo aldeko jaurtiketa egin behar denean**

**Taldeetako arduradunek eskatutako Time-out-etan, bi taldeek aldaketak egin ditzakete. Gola lortu bada, gola sartu duen taldea baloiaren jabe ez dela ulertu behar da. Kasu horietan, araua hautsi duena bi minutuz kaleratua izango da. Ezinbesteko kasuetan, lesioetan etab. eta arbitroek joko-denbora (time-out) gelditu ondoren eta haien baimenarekin, baloiaren jabe ez den taldeak aldaketak egin ahal izango ditu.**

**7 metroko jaurtiketarekin zigortutako talde batek atezaina aldatu nahi badu, aldaketa hori baimendu egin behar da. Arbitroek, unean uneko egoeraren arabera aldaketa gertatzeko time-out bat egiten duten ala ez baloratuko dute, baina aldaketa hori, joko-denboratik aparte, beti baimenduko da. Jokalari batek talde baten 7 metroak jaurti ditzakeen bezala, atezain bakarra jaurtiketa guztiak geldiarazten saia daiteke.**

## **VIII.- XEDAPEN OSAGARRIAK**

Gipuzkoako Jubenil mailako Lurralde Ligaren arau espezifiko hauek  
GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN LEHIAKETEI BURUZKO  
ERREGELAMENDU OROKORREAN garatutakoarekin osatzen dira,  
**DAGOKION OHIKO BATZARREAN** onartu zirelarik.